

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Bezeroak dira edozein negozio-ereduren funtsa, haiek gabe ezin baitu enpresa batek luzaro iraun, hortaz gure bezeroei merezi duten arreta eskaini behar diegu eta gure konfiantza eman baina horretarako argi izan behar dugu nortzuk diren gure bezeroak.

Guk lan egiten dugun merkatuak bezero oso zehatzak ditu. Ondorioz, gure merkatua merkatu nitxoa da.

Denok izan dugu noizbait arazo hau (pertxetatik "irrist" egiten dutela arropa-piezek) eta guk uste dugu denok dugula produktu honen beharra baina egia da espezifikoki **antolaketa eta ordena** behar duten bezero espezifikoak izango ditugula. Guk haientzat sortzen ditugu gure produktuak, besteak beste adin guztietako jendearentzat (gazteak, adinekoak, helduak...) denok baitugu armairu bat, pertxa bat eta arropa-pieza bat etxean.

